



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Administrariaren 28 plaza (sailkapen profesionaleko C taldekoa, C1 azpitaldea, haietako 25 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin, eta guztietatik 3 desgaitasuna duten pertsonentzako txanda murriztukoak, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin) txanda irekiko sistemaren bidez eta lehiaketa-oposizioz betetzeko hautaketa-prozesuan plaza kopurua handitzeari buruzkoa.

Kultura eta Gobernantza Saileko jarduneko zinegotzi-ordezkariek, Alkatezaren 2023ko ekainaren 17ko Ebazpenaren bidez eta Gobernu Batzarraren 2023ko ekainaren 17ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenak erabiliz, honako hau xedatzen du 2024ko azaroaren 11ko ebazpenaren bidez:

«*Lehenengoa:* Administrariaren 28 plaza (sailkapen profesionaleko C taldekoa, C1 azpitaldea, haietako 25 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin; 2019, 2020, 2021 eta 2022ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzakoak) txanda irekiko sistemaren bidez eta lehiaketa-oposizioz jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdiaren oinarrietan ezarritakoarekin bat etorriz (oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 2022ko maiatzaren 12an), aukeran izango da eskainitako plaza kopurua handitzea, baldin eta deialdiaren ostean enplegu publikoko beste eskaintza batzuk onartzen badira, eskaintza horietan eskaintzen diren lanpostu hutsen arabera. Eskaini diren eta aurrekontu-zuzkidura duten lanpostu hutsak daudenez 2023 eta 2024ko ekitaldietan, eta oraindik ez denez argitaratu gainditu dutenen zerrenda, eskainitako plazei 19 plaza gehitzea xedatzen da, haietako 15 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin eta 1 desgaitasuna duten pertsonentzako txanda murriztuan, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin. Beraz, deialdian, guztira, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietako enplegu publikoaren eskaintzei dagozkien administrariaren 47 plaza eskainiko dira, haietako 40 euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Deialdi honetako plazetatik 4 desgaitasuna dutenentzako txanda murrizturako gorde dira, euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin. Plaza hori betetzeko, baldintza hauek bete behar dira: %33ko edo hortik gorako desgaitasuna izatea, hautaprobak gainditzea eta, eskatzen zaienean, euren desgaitasun-maila egiaztatzea eta egiaztatzea desgaitasun hori oztopo ez dela lanpostuko zereginak eta berezko funtzioak betetzeko. Plaza hori betetzen ez bada, ez da txanda irekikoekin batuko.

Bigarrena: Ebazpen honen aurka, aukerakoa da berraztertze-errekurtsoa jartzea hura eman duen organoari, hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, hilabete biko epean. Kasu bietan Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatuko da epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen arabera eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluen arabera.

Hirugarrena: ...»

Bilbon, 2024ko azaroaren 11n.—Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko zuzendaria